

AINGERUA NAIZ

Imanol Carballo

Pasai San Pedro, 17 urte

Hamaika eta erdiak dituk eta oraindik ez zeukeat dirua. Gainera kabroi horrek ez zidak berriro zorretan utziko azkenengo mobidaren ondoren. Alua. Horretarako behar ditut nik lagunak? Gehien behar dituanean bizkarra ematen diate. Joder! Nola edo hala lortu behar diat diru zikin hori...

Eskalea

Horko izkina hartan nengoen eserita ia dendaren parean eta nire ondotik pasa zen, astiro-astiro, noraezean joango balitz bezala. Oso aztoraturik zegoela zirudien. Niri so geratu zen nazka aurpegiar, gorrotoa ikusi nuen haren begietan. Momentu hartan, bere bota beltzekin txakur zikin baten antzera joko ninduela pentsatu nuen. Baina hori egin beharrean, nire alboan txistua bota eta bira eman zuen. Bai, bai. Dendan sartzen ikusi nuen, bai. Kaletik denda barrura begiratu zuen geldirik segundu pare batean eta ondoren barrura sartu zen; astiro-astiro, baina oso aztoraturik. Soinean? Kazadora bakeroa, bota beltzak eta urratutako gal-tza bakero beltzak. Hogeitalau bat urte. Bai, ez horregatik.

... denda txiki horretan atso zahar bat besterik ez

zegok. Azkenaldian ia harrapatu ninduten baina ezin diat gehiago. Tira, sartu, dirua kaxatik hartu eta alde zitzu bizian. Atso horrek ez zizkidak arazokak sortuko, eta sortzen badizkit...

Atara diru guztia kaxatik oraintxe bertan atso puta hori edo burua paretaren kontra txikituko dizut

Atsoa

Bai..., bai, ondo nago. Ez, ez zidan ezer egin. Bai nirea da denda. 20 mila pezeta kaxatik. Hamaika eta erdiak aldera, bai, bakarrik nengoen. Izugarri izutu ninduen atetik bat-batean eta oihuka sartu zenean. Begiak bere lekutik ateratzeko zorian zituen. Droga zikin horrek jan egiten ditu gaur egungo gazteak. Beren bizitza suntsitzen dute eza-gutzen ez duten mundu batean sarturik. Nire koinataren semea ere horrelakoetan ibili ohi zen eta orain begira..., 27 urterekin hil zen iaz. Eh? Bai noski! Berehala eman nion dirua. Zer egingo nuen, ba? Ez, ez zidan armarik erakutsi, baina zer egingo du ni bezalako amona zahar batek gazte erotu baten aurka...! Gero korrika alde egin zuen kale horretatik eta nik, arnasa berreskuratu nuenean, telefonoa hartu nuen zuoi deitzeko. Ez, ez dut denuntziarik ipiniko. Bai, ziur! Horrekin ez dut ezer irabaziko. Gajoa; droga madarikatu horrek jan egiten ditu.

...20 mila pezeta. Honekin nahikoa daukat. Rollo hau ez duk oso sana, txo. Hauetako batean

harrapatu egingo naitek eta orduan bai gorriak ikusi beharko ditudala. Beste mobidaren bat bilatu beharko diat dirua lortzeko, bestela nireak ez zeukak etorkizun urrunik. Ea Josu putaseme hori ez zaidan joan. Oraindik hamabiak bost gutxi dituk.

Kamelloa

Haizak hi! Garbi nagok! Alde egin ezak hemendik eta utz nazak bake santuan! Ez, ez diat tipo hau ezagutzen. Noizbehinka hemendik ibilitzen zuan, ia beti erdi joanda. Yonki zikin bat besterik ez zuan. Ni, hi banintz ez ninduake gehiegi arduratuko. Esan diat ez dudala argazkiko tipoa ezagutzen. Joan hadi oiloak perratzera! Astozakil alua...

Bigarren ekitaldia

Lehen agerraldia

(Oihala gora)

(Kamelloa kale huts batean paretan baten kontra jarrita lasai-lasai zain. Yonkia agertzen da arnasestuka kale kantoitik)

KAMELLOA: Berandutxo hator... Hi! Har ezak arnasa lasai, hementxe itoko haiz bestela. Nondik hator izerdi patsetan?

YONKIA: Joan hadi oiloak perratzera!

KAMELLOA: Lasaitu hadi, txo!

YONKIA: Emaidak papelina bat. Azkar!

KAMELLOA: Monoak barnea jaten berriro ere, eztuk? Azkenaldi honetan negozioa zailtxo aur-

kitzen duk. Txakurrak inguruotan galdeketetan zebiltzak azkenaldi honetan. Zer edo zer usaintzen dutelakoan nagok. Beraz, tarifa igo beharrean aurkitu naik. Lau mila duro gramo.

YONKIA: Alua. Lagunak laguntzen ez haiz odolustu-ko, ez.

KAMELLOA: Negozioa negozioa duk!

YONKIA: Putaseme harroputza.

(Yonkiak 20 mila pezetak ematen dizkio eta kamelloak droga eman ondoren alde egiten du presaka, urduri. Kamelloak lehen zegoen moduan paretaren kontra jarraitzen du).

(Oihala behera)

Osagarriak

- Koilara bat (metalezkoa)
- Hautsak 0,1 g
- Limoierdi bat
- Xiringa bat
- Pizkailua
- Goma

Koilara angelu horizontalean ipini eta limoiz bete. Ondoren hautsak disolba itzazu bertan pizkailuarekin berotuz. Irakiten hasten den unean xiringa sustantziarekin bete. -Kontuan izan behar da xiringa modu egokian desinfektatu behar dela erosi berria bada ere. Goma besonan, sorbalda eta ukalondoaren artean, gogor estutu odola zainetatik iragatea eragotziz. Zain egoki bat aukera ezazu, xiringaren orratza sartu eta enboloa, zanpatu baino lehen, pixka bat tiratu odola xiringaren tuboan sartzeko, odola sustantziarekin nahas dadin.

Segidan enboloa zanpatu poliki-poliki guztia zainetan sartu arte...

Gurdi zoriontsu baten distira
egiten da hortzemugaren jabe
eta nire begiek irrifar egiten
diote adio gozoari.

Indar neurtezin batek
saiatzera bultzatzen nau.
Nire indargabeko gorputza
zuzentzen duten atzaparretatik
ihes egiten saiatzera,
nire izatea betiko utziz.

Metamorfosia erraza da
ia atsegina, eta sentitzen dut,
sentitzen dut inoiz baino gehiago
ongiotorriaren sentsazioa
paradisuaeren bihotzean
gerizatzen nauena.

Gustura sentitzen naiz
bakean nire arimarekin.
Aingerua naiz,
hego zuriak.

Etxeberria jauna? ertzaintzatik dei egiten dizuet
jakinarazteko Mikel, zuen semea.

...hegoak hazitzen hasi zaizkizu, luma zabal
zuriak haizearekin jolasten ari dira. Jainko erbeste-
ratu batek mundu ilun honetara bidalitako gidaria
zara. Argia erakutsi behar diozu munduari, bidea,

zorientasuna helburu duen bidea argitu behar duzu. Horretarako izan zara ekarria mundura orain arte horrelakorik ez zenekien arren.

Arima gabeko jendea besterik ez duzu ikusten, begietara begiratzen diozu andre gizen bati eta ezerezak barnea hartu diola dakusazu. Motel, oso motel ibiltzen da jendea kaleetan zehar, ilusioa galdu dutelako, esperantzaren argia ezagutzen ez dutelako...

Zapata dende txiki bat lapurtu ondoren ihesari eman zion eta uste dugu droga erosteko erabili zuela

... neoprenozko traje orlegi bat daramazu soinean bi zirrikiturekin bizkarrean, non bertatik hego zuri ederrak ateratzen zaizkizun. Arriskua somatzen duzu zoko zikin guztien iluntasunetik etengabe zuri so, zu zelatatzen. Gaizkiak badaki bere erreinuan zaudela, jaio zinenetik, eta orain arte zure atzetik ibili da zu noiz harrapatu zain. Bat-batean bi zaldun, gaizkiaren bi zaldun beren kasko gorri distiratsuekin eta likrazko traje gorri-beltzekin kale kantoitik agertu dira zu harrapatu nahian. Azkenean erabaki du gaizkiak zu erasotzea, zurekin behin betiko akabatzea. Oraindik ez zaude prest zure indarrak gaizkiarekin neurtzeko. Ihes egin beharko duzu zaldun gorrietatik...

Gure ajenteek aurkitu egin zuten baina ihesari
eman zion

...zure abiadura supersonikoa erabiltzen duzu azkarrago joateko, baina zaldun gorriek ere badiutze botere ilunak. Goizegi da oraindik hegoak

erabiltzen hasteko. Ibai beltza zure aurrean eta alde batetik bestera ziztu bizian etsaiaren ibilgailu ofentsiboak beren foko zuriekin zu bertatik iragatea galarazi nahian. Ezin duzu atzera egin, ordea, geldituz gero zureak egin du. Gurutzatzen hasten zaren unean alarma guztiek zure presentziaren abisua pasatzen dute. Eskuinetik tanke beldurgarri bat etortzen zaizu gainera izugarritzko burrunbada sortuz, baina zure erreflexu supersonikoekin haren erasoak ekiditea lortzen duzu. Kostako zaie zu harrapatzea, ez duzu hain erraz amore emango, ez...

Errepide bat gurutzatu zuen kotxe guztiak ziztu bizian pasatzen ari zirenean eta kamioi batek ia harrapatu

...kaka zaharra, gainean dituzu beren hizkuntza ustelaz oihuak askatzen. Haietako bat herensuge bihurtzen ari da, bi buruko herensuge erraldoi gorri bat ahotik su gorria dariola. Belarriak nola hazten zaizkion ikus dezakezu, ahotsa nola aldatzen, hortzak agertzen eta benetako argiaren gidaria zaren arren, beldurra sentitzen duzu. Irtenbideren bat aurkitu beharko duzu laster edo zureak egin du. Hegoak! Oraindik ez daude guztiz osaturik, baina agian zure irtenbide bakarra izango dira. Saiatu beharrean aurkitzen zara. Indarrez arras beterik sentitzen duzu arima. Zure Jainkoak bere gotorlekutik botereak bidaltzen dizkizu bakarrik ez zarela aurkitzen senti dezazun. Saiatu! Hegan egin! Zabaldu zure hego zuriak eta hegan egin askatasunaren usoaren antzera infinitua

gurutzatu arte, ortzemuga eskuetan izan arte eta izkuta zaitez eguzkiaren gordelekuan indarrak berreskuratu arte. Haizea senti dezakezu zure aurpegia laztantzen, askatasunaren sentsazioa. Atzean geratu dira zalduna eta beronen herensugea zure ihesari so. Azala guztiz pinportu zaizu sentipen atseginen ondorioz. Jainkoen boterea senti dezakezu zainetatik zabaltzen eta gorputza flotatzen, haizearekin dantza erotiko bat osatzen sentitzen duzu, lurraren gogortasunetik erbesteraturik. Atsegina, haizea, boterea, argia, askatasuna...

Eta azkenik hamar metroko altueratik salto egin zuen inongo beldurrik gabe. Sentitzen dut